

EUSKARA ETA BERE DIDAKTIKA

Iñaki Sagardoy Leuza

Determinatzaile Sintagmaren
deklinabideko bizidun/bizigabe
bereizketaren jabeakuntza Lehen
Hezkuntzan: Iruñeko adibide
bat.

TFG/GBL 2013



Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación
Primaria /

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**DETERMINATZAILE SINTAGMAREN
DEKLINABIDEKO BIZIDUN/BIZIGABE
BEREIZKETAREN JABEKUNTZA LEHEN
HEZKUNTZAN: IRUÑEKO ADIBIDE BAT**

Iñaki Sagardoy Leuza

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Iñaki Sagardoy Leuza

Izenburua / Título

Determinatzaile Sintagmaren deklinabideko bizidun/bizigabe bereizketaren jabekuntza
Lehen Hezkuntzan: Iruñeko adibide bat

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Ekaitz Santazilia Salvador

Saila / Departamento

Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika / Filología y Didáctica de la Lengua.

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2013/2014

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikokoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakutsi dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak bide eman digu eskolaren testuinguru pedagogiko, sozial eta kurrikularraren ezagupenetik, gure lanerako ezinbesteko izan ditugun metodologia eta tresna teoriko-kontzeptualak eraikitzeko. 6-12 urteko ikasleen ezaugarri kognitiboen ezaguera, bai eta jardun didaktikoaren ebaluazio eta hezkuntza ikerketarako garatutako gaitasunak, aipatutako moduluan zehazten den gisan, gure ikerlanaren oinarri izan dira, honen diseinu eta garapenean.

Didaktika eta diziplinako modulua, hizkuntza zientziaren eta komunikazio oinarrizko gaitasunaren ulermenean islatzen da gure ikerlanean. Euskal hizkuntzaren zuzentasunaren inguruko gogoeta, moduluak agintzen duenez, hizkuntza beraren irakaskuntza eta barneratze prozesuaren gaineko lana ahalbidetu digu. Berriz ere, tresna didaktikoen eta ikasleen ebaluazio lanak gaitasunen beharrezko presentziaren analisirako bide izan dira.

Halaber, Practicum modulua ikasleekin izandako hartu-emanen eta ikasgelaren nondik-norakoetan bizitakoetan islatzen da. Teoria eta praktika ikasgelaren egunerokotasunaren errealitatearekin harremanean jartzea edo etaparen ezaguera integrala Practicum aldirik gabe ezinezko izanen litzatekeelako. Zalantzarik gabe, gure lanaren eta gure etorkizuneko jardun izango denaren oinarrietako bat. Ezaguera honetatik abiatu gara gure proposamenaren diseinua garatzeko, erabili diren materialak sortzeko edota behar den maila linguistikoa zehaztu eta eskatzeko.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “INTRODUCCION TEÓRICA” eta “CONCLUSIONES Y CUESTIONES ABIERTAS” atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Euskaran, Determinatzaile Sintagmaren deklinabidean, Leku-Denborazko postposizioek (LDP) berezitasun morfologiko zenbait dituzte: horien artean, *-ga-* morfemaren bidezko markatze bereizgarria hain zuzen, LPD-a izen bizidun bati atxikitzen zaionean. Euskara batuaren gramatikan sistematikoa den bereizketa hori, baina, salbuespenez josia dagoela ikus daiteke, testu zaharrak edo bariazio dialektala kontuan hartzen ditugun unean.

Orobat gertatzen da haurren hizkuntzaren jabekuntza prozesuan, izan ere, askotan aurki daitezke haien ekoizpenean ez-animatutzat deklinatutako Determinatzaile Sintagma animatuak. Lan honek LDP-en bizidun / bizigabe bereizketa morfologikoaren erabilera aztertu du Lehen Hezkuntzako ikasleengan.

Sarrera teoriko baten ondotik, Iruñeko 6. mailako D ereduako haur zenbait ikertu ditugu eta datuen azterketaren ondotik eskolan gramatikaren atal horren lanketak duen lekuaren berri jaso dugu, azkenean proposamen didaktiko bat eginez.

*Hitz gakoak:*D Eredua; animazitatea; jabekuntza; izen morfologia; Iruñea.

Resumen

Las posposiciones espacio temporales (PET) tienen unas particularidades morfológicas en la declinación del Sintagma Determinante vasco: Entre otras, la utilización del morfema *-ga-* para la diferenciación entre seres animados e inanimados. No obstante, encontramos excepciones en esta diferenciación, sistémica en el euskera batúa, en textos antiguos y variantes dialectales de la lengua.

Durante el transcurso del proceso de aprendizaje e interiorización de la lengua en la etapa infantil, no es extraño encontrar producciones donde los sintagmas animados son declinados de forma no-animada. En este trabajo se ha examinado la utilización de la diferenciación morfológica entre seres animados e inanimados en estudiantes de educación primaria.

Después de una introducción teórica hemos estudiado los datos extraídos de la investigación llevada a cabo con alumnos de 6º de educación primaria del modelo D en

Pamplona. Hemos observado la labor pedagógica y trabajo que se realiza en esta materia. Finalmente, concluimos con una propuesta didáctica.

Palabras clave: Modelo D; animacidad; interiorización; morfología nominal; Pamplona.

Abstract

Spatio-temporal postpositions (STP) have morphological peculiarities in the decline of Basque Syntagma Determinant: Among others, the use of the morpheme *-ga-* for differentiating between animate and inanimate beings. However, we can find exceptions to this differentiation, systemic in Standard Basque, in ancient texts and dialects of the language.

During the course of the learning process and internalization of language in the infant stage, it is not unusual to find animated productions where phrases are declined as the non- animated form. This research has examined the use of morphological differentiation between animate and inanimate beings elementary students.

After a theoretical introduction, we studied the data from the research conducted with D model students from 6th grade education in Pamplona. We observed the educational work done in this area. Finally, we conclude with a methodological approach.

Keywords: D model; animacity; internalization; noun morphology; Pamplona.

Aurkibidea

1. Introducción teórica	1
1.1. Deklinabidea (Paradigma vasco)	2
1.2. Posposiciones espacio-temporales (PET)	4
2. Problematika	6
2.1. Gramatika zaharretan	7
2.2. Testu zaharretan	9
2.3. Euskalkietan	11
2.3.1. Problematika Nafarroako euskalkietan	11
2.3.2. Ekialdeko nafarra	12
2.3.3. Nafarra	13
2.3.4. Nafar eta lapurtarraren arteko trantsizioa	15
2.3.5. Erdialdekoa	16
2.3.6. Nafarra eta erdialdekoaren arteko trantsizioa	17
2.3.7. Ondorioak	18
3. Testuinguru pedagogikoa	18
3.1. Deklinabide eta LDP Lehen Hezkuntzako Curriculumean	18
3.2. Deklinabidea eta LDP testuliburuetan	20
4. Hipotesia	24
5. Metodologia	24
6. Datuak eta analisia	26
6.1. <i>Bete itzazu hutsuneak</i> multzoa	26
6.1.1. Inesiboa	26
6.1.2. Ablatiboa	28
6.1.3. Adlatiboa	29
6.1.4. Hurbiltze-adlatiboa	30
6.1.5. Muga-adlatiboa	31
6.1.6. Multzoaren datu orokor kuantitatiboak	32
6.2. <i>Euskaratu esaldiak</i> multzoa	33
6.2.1. Inesiboa	33
6.2.2. Ablatiboa	34
6.2.3. Adlatiboa	35
6.2.4. Hurbiltze-adlatiboa	36
6.2.5. Muga-adlatiboa	37
6.2.6. Multzoaren datu orokor kuantitatiboak	38
6.3. Multzoaren datu orokor kuantitatiboak	39
6.4. LDP bakoitzaren arrakasta (arrakasten osotasunarekiko)	40
6.5. Ikerketaren ondorio nagusiak	40

Conclusiones y cuestiones abiertas

Erreferentziak

Gehigarriak

1. INTRODUCCIÓN TEÓRICA

No resulta una tarea sencilla definir que es la declinación. Podemos comenzar señalando que algunas lenguas, entre ellas el euskara, se sirven de sufijos casuales para asignar una función gramatical o rol temático al Sintagma Determinante que acompañan. Así, podemos definir la declinación como el conjunto de sufijos casuales que sustantivos, pronombres o adjetivos toman en algunas lenguas, otorgándoles de este modo una función en la oración. Por tanto, la declinación es el paradigma del conjunto de sufijos casuales (Euskaltzaindia, 1991).

El número de casos no es igual en todas las lenguas y cambian significativamente del indoeuropeo al latín o al griego, y de estos al euskera por ejemplo. Si el número de casos que forman el paradigma de la declinación varía de un idioma a otro, también el número de paradigmas de la declinación de una lengua es cambiante. Los paradigmas cambiarán según las funciones existentes y se desarrollarán conjuntamente, adaptándose a nuevas realidades y/o funciones lingüísticas.

Si atendemos a la formación y estructura de la declinación, debemos diferenciar, por la importancia que tendrá en nuestro análisis de la lengua vasca, las lenguas flexionales y aglutinantes. Lázaro define las lenguas aglutinantes de la siguiente manera:

Son aquellas cuyas relaciones gramaticales se traban por medio de la aglutinación en una sola palabra de varios elementos, cada uno de los cuales posee una significación fija, una total individualidad. Ello les permite unirse efímeramente, y separarse, en el complejo usado como palabra (Lázaro, 1953:9)

Las lenguas flexivas, amalgamantes, formantes o sintéticas son, según el autor, las lenguas en las que se realiza el fenómeno de la flexión:

Variación de que son susceptibles determinadas palabras en las denominadas lenguas flexivas, para determinar distintas funciones y relaciones de dependencia, reacción, concordancia, etc., mediante la afijación de desinencias (Lázaro, 1953:150)

El fenómeno del sincretismo ocurre cuando un idioma utiliza un mismo morfema casual para expresar diferentes funciones gramaticales. Es decir, cuando dos conceptos en principio identificable e independientes, se presentan de forma fusionada no separable para nuestro análisis. Esto ocurrió con el latín (Palmer,1988), y es visible

también en el euskera, especialmente en el lenguaje oral y en algunas construcciones de diferentes dialectos.

Después de esta introducción a la definición y características del sistema declinativo, conozcamos el paradigma de la lengua vasca.

1.1. Deklinabidea (Paradigma vasco)

Es lógico pensar que, siendo clérigos, habituados al latín y al griego, los primeros interesados en el funcionamiento de la lengua vasca, se hayan aplicado históricamente unos modelos descriptivos de la declinación del vasco más convenientes para lenguas flexionales (como las clásicas antes mencionadas) que para aglutinantes como es el euskera (Urkizu, 1996).

No nos detendremos, por no ser nuestro objeto de trabajo en esta ocasión, en la existencia o no de una declinación en la lengua vasca. A modo de ejemplo podemos mencionar algún autor (Salaburu, 2011) que niega la existencia de esta alegando motivos gramaticales propios de la lengua vasca como que los morfemas casuales afectan a todo el sistema nominal en su conjunto y no a cada una de sus partes, o el ya mencionado carácter aglutinante del idioma.

Al margen de discusiones terminológicas podemos afirmar que en el euskara, al contrario que en lenguas colindantes como el francés o el español, el sintagma determinante se declina por medio de un sistema casual. Otros (Salaburu, 2011; Santazilia, 2013), prefieren describirlo más bien posposicional, distinción que obviaremos en el presente trabajo.

Aunque no exista un acuerdo sobre el número exacto de casos en las diferentes gramáticas publicadas¹, podemos encontrar un consenso general en la diferenciación de tres grandes grupos: Casos gramaticales, Casos locativos y un tercer grupo que aglutina otros casos (Euskaltzaindia, 1991).

Recogemos en la siguiente tabla, atendiendo al paradigma propuesto por Ilari y Entzi Zubiri, los casos vascos (Zubiri & Zubiri, 2000):

¹ Txillardegi (1978) diferencia 16 casos y Laffite (1972) 12.

Determinatzaile Sintagmaren deklinabideko bizidun/bizigabe bereizketaren jabekuntza Lehen Hezkuntzan: Iruñeko adibide bat

Tabla 1. Paradigma vasco según Zubiri & Zubiri (2000)

	Caso	Declinación definida		Declinación
		Singular	Plural	Indefinida
Casos gramaticales	Nominativo	<i>-a</i>	<i>-ak</i>	<i>-∅</i>
	Ergativo	<i>-ak</i>	<i>-ek</i>	<i>-(ek)</i>
	Dativo	<i>-ari</i>	<i>-ei</i>	<i>-(r)i</i>
Casos locativos	Inesivo	<i>-(e)an</i>	<i>-etan</i>	<i>-(e)tan; -(e)n</i>
	Ablativo	<i>-(e)tik</i>	<i>-etatik</i>	<i>-(e)tatik; (e)tik</i>
	Adlativo	<i>-(e)ra</i>	<i>-etara</i>	<i>-(e)tara; -(e)ra</i>
	Adlativo direccional	<i>-(e)rantz</i>	<i>-etarantz</i>	<i>-(e)tarantz; -(e)rantz</i>
	Adlativo limitativo	<i>-(e)raino</i>	<i>-etaraino</i>	<i>-(e)taraino; -(e)raino</i>
Otros casos	Partitivo	-	-	<i>-(r)ik</i>
	Posesivo	<i>-aren</i>	<i>-en</i>	<i>-(r)en</i>
	Destinativo	<i>-arentzat</i>	<i>-entzat</i>	<i>-(r)entzat</i>
	Sociativo	<i>-arekin</i>	<i>-ekin</i>	<i>-(r)ekin</i>
	Instrumental	<i>-az</i>	<i>-ez</i>	<i>-(e)z; -(e)taz</i>
	Genitivo	<i>-(e)ko</i>	<i>-etako</i>	<i>-(e)tako; -(e)ko</i>
	Adlativo destinativo	<i>-(e)rako</i>	<i>-etarako</i>	<i>-(e)tarako; -(e)rako</i>
	Prolativo	-	-	<i>tzat</i>

Los casos Gramaticales (también llamados actantes), así denominados por la función gramatical que desempeñan, quedan reflejados en la morfología verbal, pues guardan necesariamente concordancia con el verbo; pudiendo desaparecer los pronombres y quedando intacto el significado de la oración. No cuentan con significado propio y su función se reduce a lo gramatical como hemos mencionado anteriormente. Desarrollaremos a continuación, especialmente por una de sus

particularidades morfológicas, un segundo grupo, identificable a su vez por las características comunes: Los casos locativos. A partir de este momento los denominaremos posposiciones espacio-temporales (PET).

1.2. Posposiciones espacio-temporales (PET)

En cualquier idioma podemos encontrar elementos que complementan una situación introducida por verbos estacionales y de movimiento como ser, venir, ir etc. Suelen servir de respuesta a preguntas como *¿Dónde estás? ¿Dónde vas? ¿De dónde vienes?* (Euskaltzaindia, 1991). En el euskera esta labor corresponde a las posposiciones espacio-temporales, que definiremos a continuación.

Podemos afirmar que son tres las posposiciones espacio-temporales: Inesivo, ablativo y adlativo (Santazilia, 2013). Además, el caso adlativo cuenta con dos variantes, una que expresa dirección y otra límite.

Tabla 2. PET según Zubiri & Zubiri (2000)

	Sintagmas inanimados			Sintagmas animados		
	D. Definida		D. Indefinida	D. Definida		D. Indefinida
	Singular	Plural		Singular	Plural	
In.	<i>-(e)an</i>	<i>-etan</i>	<i>-(e)tan</i>	<i>-a(ren)gan</i>	<i>-engan</i>	<i>-(r)engan</i>
			<i>-(e)n</i>			
Ab.	<i>-(e)tik</i>	<i>-etatik</i>	<i>-(e)tatik</i>	<i>-a(ren)gandik</i>	<i>-engandik</i>	<i>-(r)engandik</i>
Ad.	<i>-(e)ra</i>	<i>-etara</i>	<i>-(e)tara</i>	<i>-a(ren)gana</i>	<i>-engana</i>	<i>-(r)engana</i>
			<i>-(e)ra</i>			
Ad. D.	<i>-(e)rantz</i>	<i>-etarantz</i>	<i>-(e)tarantz</i>	<i>-a(ren)ganantz</i>	<i>-enganantz</i>	<i>-(r)enganantz</i>
Ad. L.	<i>-(e)raino</i>	<i>-etaraino</i>	<i>-(e)taraino</i>	<i>-a(ren)ganaino</i>	<i>-enganaino</i>	<i>-(r)enganaino</i>
			<i>-(e)raino</i>			

Las PET cuentan en el idioma vasco con unas características distintivas, unas particularidades morfológicas (Salaburu, 2011):

- El infijo *-ta-*
 - Cuando no es un sintagma definido singular:
 - (1)
 - a. *[Zein etxeTAn] bizi zara?* (Indefinido)
 - b. *[ArboleTAra] igo ziren tximinoak.* (Definido plural).
 - Cuando el determinante es demostrativo.
 - (2)
 - a. *[Etxe honeTAn] ez dago lan egiterik.*
 - b. *[Arazo honeTAz] mintzatu nahi dut.*
 - Con artículos indeterminados.
 - (3)
 - a. *Zerbaitetan pentsatu beharra dago.*
 - b. *ZerTAn ari zara? / Zer laneTAn ari zara orain?*
 - En nombres propios, al contrario, no se inserta ningún infijo.
- El infijo *-ga-* en sintagmas animados: En las posiciones espacio-temporales los sintagmas inanimados y animados se diferencian morfológicamente. En los animados, además del morfema *-en* del genitivo, se utiliza el infijo *-ga-*, siendo opcional en algunos casos la marca genitiva.
 - (4)
 - a. *Konfiantza osoa zuten irakasleaRENGAN.*
 - b. *Ez dut laguntzarik jaso inorENGANDIK.*
 - c. *OlatzENGANA hurbildu nintzen.*
 - d. *Ez zaitez ministroaRENGANAINO hurbiltzen saiatu.*
 - No encontramos artículo cuando el sintagma posposicional es definido (excepto en el caso inesivo).
 - (5)
 - a. *[_{POS} Etxetik] gatoz. (*etxeatik gatoz)*

- b. [_{POS} Etxera] etorri zitzaidan (*etxeara etorri zitzaidan)
- c. [_{POS} Etxeraino] eraman genizkion loreak (*etxearaino eraman genizkion loreak)

Desarrollaremos a continuación, siendo eje central de nuestro trabajo, la problemática que surge en la diferenciación de sistemas animados e inanimados en el euskera mediante el morfema *-ga-*. Uno de los fenómenos más interesantes de la gramática vasca, como Karoly Morvay explicita:

En los casos locativos tenemos formas claramente diferenciadas para nombres animados por un lado y nombres inanimados por otro, distinción que a mi modo de ver no recibe la atención que merece. Considero que este tipo de diferenciación genérica, expresada por un morfema auxiliar, es una de las características fundamentales de la declinación vasca (Morvay, 1983:66).

2. PROBLEMATIKA

Gure ikerlanean berriki azaldutako bizidun/bizigabeen arteko bereizketa, animazitatearen ezaugarriak izan ditugu jorragai. Badakigu euskara batuaren baitan arautua dagoela bereizketa hau, eta hala jasotzen du Euskaltzaindiak:

Gainerako guztiek ez bezala, itxuraz bederen desberdin diren bi eratako atzizkiak (*(e)tan*, *-(e)ngan*, *etab.*) harrerazitzen dizkien beste bereizkuntza bat.

Bereizkuntza hori hondarraren hondarrean zertan datzan eta zein hitzek atzizki sail bata eta zeintzuk bestea hartzen duten oraino ez dute hizkuntzalariek zahazkiro argitu, ez finkatu. Gramatikalariek, ordea, honela daukate aspaldidanik mugatuta: alegia, *bizigabe* direlako hitz edo izen-sintagmek hartzen omen dute sail bata (*-(e)tan...*) eta *bizidun* direlakoek bestea (*-(e)ngan...*) (Euskaltzaindia, 1991:235).

Hala ere, ez pentsa aipatutako bereizketa uniforme edo homoginoa denik euskararen ibilbide historikoan, ez eta egungo zabalkunde dialektalean. Bere garaian, Euskaltzaindiak berak ere jaso zuen problematika:

Ezin uka haatik batzuen eta besteen (bizidun eta bizigabeak) arteko muga non datzan erabakitzen maiz zaila dela eta inoiz edo behin lehenek ere bigarren saileko atzizkiak,

hala nola: *Zure ontasun eta paciencia andiagana*. Eta bigarrenek maiz lehenekoek ere hartzen dituztela: *anderetan, gizonetan...*² (Euskaltzaindia, 1991:235).

2.1. Gramatika zaharretan

Leku-denborazko postposizioen inguruan gramatika goiztiar batzuek diotena gurera ekartzea interesgarri iruditu zaigu, ikuspegi historikoa jorratze aldera eta hurrengo azpiataletan azalduko ditugunak testuinguratzeko helburuarekin.

Arturo Campion iruindarraren *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua vasca*-ren lehenengo edizioan (Campion, 1884), badira kasu-sistemaren inguruan hainbat aipu eta azalpen, eta bitxikeriaren bat ere bai:

GAN.=Es el sufijo locativo personal, que los dialectos bizcaino y guipuzcoano emplean con los nombres de personas y seres razonables. En cuanto a su origen etimológico y para completar lo dicho respecto a *baitha*, trasladaré aquí la opinión del Príncipe Bonaparte. «*ga* se encuentra tan próximo a *ca*, sinónimo dialectal italiano de casa que *gan* se traduce literalmente por *in casa* o *in ca*. Italia presenta, pues, en sus dialectos, la palabra euskara *baita*, y el bascuence a su vez, la palabra *ga*, derivada del itálico *ca* o casa: nueva prueba del contacto basco-itálico. Hay, además, identidad perfecta entre *baita* basco-lombardo, y *casa* o *ca* ítalo-bascongado, tocante al régimen, cuando van acompañados del nombre del poseedor. Si a este lo representa un nombre común, el italiano puede, ad-libitum, hacer o no preceder el nombre del poseedor de la preposición *di* «de», lo mismo que el bascuence puede, según los dialectos, y a veces en el mismo dialecto, hacerlo, o no, seguir del sufijo genitivo de posesión *en*. Así el guipuzcoano expresará «en el marido» con *senarragan* o *senarrarengan*; el labortano con *senharraren baithan*; el alto-nabarro meridional con *senarra baitan*, ni más ni menos que el italiano traducirá «en casa del marido» con «*in casa del marito*»... El sufijo GAN se usa siempre que el locativo se aplica á una persona; por ejemplo: *ez det arkitu kulparik aurragan* (Campion, 1884:208).

GANAT, GANA.=Es otro sufijo directivo personal, conocido en los cuatro dialectos, que se aglutina a los nombres de seres animados, aunque sean de animales, si se personalizan en el discurso; por ejemplo: *zoaz, nagia, chinaurrarengana* (Campion, 1884:212).

² Euskaltzaindiak adibideak Kardaberazen eta Etxepareren idazkietatik jaso ditu hurrenez hurren.

GANNA parece ser una forma contraída. En el lenguaje vulgar es muy común contraer el directivo, sobre todo si el nombre termina en *a*; por ejemplo: *Iruña* «a Pamplona», *Hernania* «a Hernani», *Tolosa* «a tolosa», en vez de *Iruñara*, *Hernanira*, *Tolosara*. Por lo tanto, *gana* podría ser una contracción de *ganera*. A primera vista puede parecer extraña la amalgama de un sufijo material, *ra*, con un personal, *gan*; pero existen otros ejemplos de esta amalgama y por lo mismo no repugna admitirla en un caso más (Campion, 1884:212).

GANDIK, GANIK.=Es el sufijo de procedencia personal, llamado *elativo* por algunos lingüistas. Se emplea exclusivamente para marcar la persona o ser razonable del cual se aparta la acción realizada ó posible, *gandik* es la forma guipuzcoana; *ganik* la de los tres restantes dialectos (Campion, 1884:220).

Azkuek ordea, 1925. Urteko *Morfología Vasca-n*³, aurrekoen ideia batzuk deuseztatu eta berri batzuk eratu zituen:

No hay datos para asegurar que el vocablo lombardo-provenzal *baita* «casa» se haya usado entre nosotros como independiente: *baita bat*, *baita zahara*. El oficio que desempeña en vascuence desde que lo tenemos en casa es de infijo de declinación, equivalente al *-gan-*, al parecer primitivo y seguramente indígena, a pesar de la opinión contraria de Bonaparte: *neugandik*, *nereganik*, *enebaitarik* (Azkue, 1925:12).

Al redactar la fórmula que comprende las ocho leyes precedentes se ha puesto un paréntesis en el que se restringe la teoría a solo seres inanimados; porque tratándose de vocablos, en consonante y comunes, de seres animados, como *mutil* muchacho, *gizon* hombre, *alkar* uno y otro (seres animados), éstos reciben sí la epentética *e*, pero no inmediatamente o antes de la desinencia, sino mediante uno de los infijos semánticos que se expondrán más tarde. No *decimos mutilean*, *mutiletik*, *mutilera*; *gizonean*, *gizonetik*, *gizonera*; *alkarreetan*, *alkarretetik*, *alkarrera* como *ezkerreetan*, *ezkerretetik*. *ezkerrera*, sino *lau mutilegan*, *lau mutilegandik*, *lau mutilegana*, *zein gizonegan*, *zein gizonegandik*, *alkaregana*... etc. (Azkue, 1925:292).

A ciencia cierta, no se puede resolver si las formas con el posesivo *Aitarengana*, *nereganik*... son más o menos antiguas en el idioma, más o menos puras que las que no lo llevan, como *Aitagana*, *niganik*... etc. El hecho de que entre los vascos occidentales sean desusadas las primeras formas permite conjeturar que, como *baita*

³ Adibide eskas batzuk baino ez ditugu mahaigaineratuko, ez baitugu lekurik hemen, hala ere Azkueren obra oso interesgarritzat jotzen dugu, gure jardunerako oso erabilgarri suertatu baita.

Determinatzaile Sintagmaren deklinabideko bizidun/bizigabe bereizketaren jabekuntza Lehen Hezkuntzan: Iruñeko adibide bat

es casi sinónimo de *gan* y por su significación parece exigir el posesivo y vive precisamente entre los orientales, el uso de *gure baitan*, *gure bailarik* habrá tal vez influido en *guregan*, *gureganik* en vez de *gugan* y *gugandik* (Azkue, 1925:302).

Dударик gabe, gramatikari goiztiar hauek etorkizunean landuko ziren hainbat zalantza eta buruhausteetan aurreratu ziren ikusi ahal izan dugunez.

2.2. Problematika testu zaharretan

-ga- morfemaren bidezko bizidun/bizigabe bereizketak testu zaharretan ageri dituen gorabeheren berri, Creissels eta Mounoloren lanak (2011) dakarkigu.

Beren lanean, hizkuntzalariak 16. mendeko (euskaraz idatzitako zaharrenak) eta 18. mendeko testuak aztertu dituzte: Etxepare, Lazarraga, Etxeberri de Sare, Arzadun, Urkizu, Maizter eta Ubillosen testuak alegia.

Gan eta *baita* osagaiak (idazleek izendatzen dituzten gisan) derrigorrezkoak izaten dira lekua adierazten duten izen animatuetan, euskara batuan, eta beren testigantza dute ere testu zahar gehienetan. Hala ere, azpimarratzen dute lekutasun kasuetan agertzen diren izenak (*ganekin* edo ez) gehienetan lekutasunik ez duten funtzioetan agertzen direla. Adlatiboa da argi lekutasun funtzioan ageri dena. Bide batez, ohar hauxe arretaz aztertzea dela azpimarratzen dute, testu zahar gehientsuak erlijio tankeratakoak baitira eta leku harremanak gutxitan direlako agerikoak. Gehienetan leku adierazpena metaforikoa izaten da alegia.

Animatuak diren izenordainetan *ganen* erabilera ezberdina da egileengan. Mendebaldeko autore batek (Lazarragak kasu honetan) lekutasun forma guztietan erabiltzen du *gan*:

(6)

- a. *Nigan ez dago zurea ez dan gauzarik* (apud Creissels & Mounole, 2011).

Ekialdeko testigantzetan, aldiz, kasu adlatibo eta ablatiboetan baino ez dago jasota. Etxeparek edota Maizterrek ez dute inesiboan erabiltzen:

(7)

- a. *Bekhaturik ezta izan zutan, Andre handia* (apud Creissels & Mounole, 2011).

18. mendeko idazkietan badira bizigabeak *gan*-ez deklinatuak, Ubillosenak kasu:

(8)

- a. *Nondic dator becatu ori? Adanek egin zuan becatuagandik* (apud Creissels & Mounole, 2011).

Izenei dagokienez, *ganen* agerpena ohikoa da 16.mendeko testuetako mugatu singularretan, Etxeparen adibidez:

(9)

- a. *Nahi duiena hala duke amak semiagandik* (apud Creissels & Mounole, 2011).

Mugatu pluraletan edo mugagabeen, berriz, ez da horrelakorik gertatzen, Lazarragan bezala:

(10)

- a. *Neure buruau ez nei ondo andratan confiatzea, geure arerioetarik libradu gagizuz* (apud Creissels & Mounole, 2011).

Noizbehinka, badaude bizidunak diren izen pluraletan edo mugagabetan *ganen* agerpenak ere, 18. mendeko Ubillosen testuetan alegia:

(11)

- a. *Gaiztoakgandik aldegin* (apud Creissels & Mounole, 2011).

Aipatzekoa da, 18. mendeko Maizterrek jainkotasun adibidetan zuzeneko deklinazioa erabiltzen duela (*ganik* gabea):

(12)

- a. *Bere confidantcha ossua jincouatan eçarten du.*
b. *Jesusegatik eta Jesusetan maitha itçaçu* (apud Creissels & Mounole, 2011).

Testu zaharretan ere ondoren azalduko ditugun euskalkien ezaugarri eta formak aurkituko ditugu. Hala, ez da harritzekoa Etxepare, Etxeberri de Sare edo Maizterren testuetan *ganen* ordez *baitaren* erabilera topatzea:

(13)

- a. *Guiçon debota bere beithan berhala sartcen da* (apud Creissels & Mounole, 2011).

2.3 Problematika euskalkietan

Gramatika eta testu zaharretan jasotzen den moduan, eta egungo erabileran ere, bizidun/bizigabe bereizketa eta *-ga-* artizkiaren agerpena ezin da euskalki guztietara zabaldu edo orokortu, Euskaltzaindiak euskara baturako hala arautu arren.

Mendebaldeko euskalkietan ekialdekoetan baino maizago erabiltzen da *-ga-*, eta esan daiteke ekialdeko euskalkietan artizkiaren erabilera bizidunekin mugatu singularrean baino ez dela derrigorrezko (Creissels & Mounole, 2011:173). Plural eta mugagabeen *-ta-* artizkia erabiltzen ohi dute, Axularren lanean ikusgai adibide aunitz: *emaztetan*, *emaztetako*, *emaztetara*, *emaztetarik...* (Euskaltzaindia, 1991).

Nafar-lapurtar eta zuberotar⁴ euskalkietan, singularrean, *baita* erabiltzen dute (bereziki genitiboan) *-ga-*en funtzio parekidean. Bide batez, eginbehar berdinean topatzen ohi dugu lekutasuna ez-zehatza den kasuetan (Creissels & Mounole, 2011), adibide honetan bezalaxe: *Sinesten dut Jainkoa baithan* (Lafitte, 1979).

Badago, ordea, ezberdintasun garrantzitsua erabilera zehatz batean. *-ga-*rekin gertatzen ez den bezala, *baita* batzuetan norbaiten ohiko bizitokiarekin jartzen da harremanean: *Anaia baithara doa* (Mitxelenak jaso). Ez da arraroa funtzio honetan beste motako etsenpluak bilatzea: *Petrikobaita* (Petrikoren etxea), *Beñatbaita* (Beñaten etxea) (Creissels & Mounole, 2011).

2.3.1. Problematika Nafarroako euskalkietan

Aipatutako lanetan argitzen direnak zabaltze aldera Nafarroako hainbat euskalkiren analisia interesgarri suerta daitekeela uste dugu, gure lanaren marko soziolinguistikoa

⁴ Koldo Zuazoren (2008) euskalkien izendapenak erabiliko ditugu.

baita modu batean. Gurera ekarriko ditugu, beraz, leku-denborazko postposizioei nafar euskalki batzuek ematen dioten tratamendua.

2.3.2. Ekialdeko Nafarra



1. Irudia. Ekialdeko nafarraren zabalkunde geografikoa (Zuazo, 2008)

Ekialdeko nafarrarekin has gaitzeko, lehenago aipatu ditugun adibideetatik gertu egoteagatik, bai geografikoki eta baita morfologikoki ere. Aitor Aranak, zaraitzueraren hiztegiaren eta *Zaraitzuko uskara* (Arana, 2002), zaraitzuera ikasteko eskuliburuaren egileak, lekutasun sistemak (bizidunetan) aipatzen ditu euskalkiaren argibideetan. Hala, *norengan* esateko (inesiboa bizidunetan) *noren baitan* erabiltzen dela zehazten du. Izenordainetan, *-tan* inesibo mugagabea edo mugatu singularra erabiltzeko joera sumatzen delarik:

(14) (Arana, 2002:68)

- a. *Jaungoikoaren baitan esperatzen dugu.*
- b. *Konfiantzen dugu auntzian.*
- c. *Norbaiten baitan.*

Norengana dokumentatuago dagoela azpimarratzen du, noizbait ere *nora* mugagabea erabiltzen delarik:

(15) (Arana, 2002:68)

- a. *Gizonengana, gizonetra eta emazteengana, emaztetra.*

- b. *Marixurengana faten nuk, zer erraten duen.*
- c. *Antxumea faten duk auntzarengana.*
- d. *Ni faten niz amaren eta aitarengana bazkaltzera.*
- e. *Deatu zizun beragana.*

Zaraitzu aldean *norengandik* ordez *noreganik* erabilia izan dela ikus daitekeela argitzen du Aranak. Noizbehinka ere, *nondik* mugagabea aurkitu daitekeelarik:

(16) (Arana, 2002:68)

- a. *Ene amarenganik ikasi nuen.*
- b. *Emazteenganik, emaztetarik eta gizonenganik, gizonetarik.*
- c. *Ikas zazie eneganik.*
- d. *Semea aitaganik berextra xin nuzu.*
- e. *Nolaiei egiten da demonioarenganik?*

2.3.3. Nafarra



2.Irudia. Nafarraren zabalkunde geografikoa (Zuazo,2008)

Nafarreraren eremuan, Erroibar eta Esteribarko haranetan bereizketaren nondik norakoak ezberdinak direla behatu dugu. Hala jasotzen da Orreaga Ibarren *Erroibarko eta Esteribarko hizkera* liburuan (Ibarra, 2000). Ibarrek dioenez bizidunen morfemetarako ekialdeko hizkeretan eta goi-nafarreran arrunta den *baitan* erabiltzen da inesiboan, Erroko testu zaharretan adibide:

(17) (Ibarra, 20:108-109)

- a. *Zuen baitan*
- b. *Maria Santissimaren baitan*
- c. *Santi Jaunaren baitan*
- d. *Seme bacarra baitan*
- e. *Creazalea baitan*

Egun ere horrelakoak aurkitzea ohikoa dela ohartarazten du Ibarrak, baina, bizidunaren morfemarik ez darabiltenak ere topatzen direla gaineratzen du: *Usetxiko badut konfiantza maztékietan* edo *Mezkiritzeko medikure joan da*.

Aipatzekoa da *-gan*, bezala, *gisa* bezalako funtzioen ordezkapenean agertzen dela batzuetan: *soldadugan irezi bear nituen* (Lintzoain).

Ablatiboan, bizidunekin eta *elkar* izenordainarekin *-gandik* erabiltzen da, adibide gisa ikus Ibarrak biltzen dituen Lintzoaingo adibide hauexek:

(18) (Ibarra, 2000:117)

- a. *Bere aitengandik*
- b. *Neregandik eztu yagoko semeik izan*
- c. *Mutilengandik*
- d. *Onengandik izen zituen neskatxa bat eta mutikoat*
- e. *Medikuengandik*
- f. *Elkarrengandik apartatuik egon dire*

Adlatiboan egiten den bereizketa ezaz ere mintzo da egilea:

Bizidunekin *-ra* morfema eriden dugu. Izan ere, nahiko ohikoa da lekuzko kasuetan bizidunak bizigabeak bezala deklinatzea:

Medikura joan ze (Usetxi)

Abratsetara tortzen dire erregeak (Usetxi) (Ibarra, 2000:121).

Muga-adlatibo kasuetan ere bereizketarik ez da egiten bizidunekin, eta zenbaitetan *-raino* erabiltzen da, Mezkiritzeko adibide honetan bezala: *gastenetatik abiatu zarreneraño*.

2.3.4. Nafar eta Nafar-Lapurterraren arteko trantsizioa



3. Irudia. Nafar eta nafar-lapurterraren trantsizioaren zabalkunde geografikoa (Zuazo, 2008)

Mendebalderago, nafarra eta nafar-lapurterra nahasten diren Baztango ibarran beste nolabaiteko ezaugarriak ditu euskalkiak leku-denborazko postposizioek bizidun/bizigabe bereizketari dagokionean. Pello Salaburuk eta Maite Lakarrek (2005) ederki laburbiltzen dute honako paragrafoan:

Bizidunen paradigma ez da ibiltzen Baztango solasean bertze euskalkietan bezala, hori da berehala atzematen duena baztandarrak kanpora joan bezain laster (Salaburu & Lakar, 2005:77).

Iduriz baztandarrek *Joxepa medikura gan da* darabilte egunerokotasunean, eta egileek adibidearen azalpena ematen dute ere:

Hau arrunta da Baztanen, jendea 'medikura' joaten baita, 'medikuarengana' baino maizago, Baztangoizatik hasi eta Oronozeraino. Horrek ez du erran nahi 'medikuarengana' (*medikueingena* ahoskatua) ez dela ibiltzen. Hori ere ibiltzen da, eta

batez ere mediku ezaguna baldin bada (baldin badakigu nori buruz ari garen), edo izena jartzen bada, ez da dudarik orduan bizidunen marka ibili behar dela:

Eusebio medikueingena gan da Joxepa

Mediku orrengana gain da Joxepa (Salaburu & Lakar, 2005:77).

Egileek bizigabeen marka nolabaiteko mugagabearen antzera erabiltzen dela ondorioztatzen dute azkenean.

2.3.5. Erdialdekoa



4.Irudia. Erdialdekoaren zabalkunde geografikoa (Zuazo, 2008)

Erdialdeko euskarak badu presentzia Nafarroako ipar-mendebaldean, Gipuzkoako mugan diren herrietan alegia. Aralarko mailoen barrenean kokatzen diren herriek, bai Araitz bailarakoek (Arribe, Atallu, Azkarate, Gaintza, Intza eta Uztegi) eta bai Betelu eta Larraungoek (Errazkin eta Lezaeta) euskalki bera konpartitzen dute. Koldo Zuazok, zonaldean argitaratzen den aldizkariaren izena hartzen du hizkera horixe izendatzeko: *Mailopeko euskara* (Zuazo, 2011).

Berriz ere bizidun eta bizigabeen arteko bereizketari erreparatuko diogu. Mailopeko euskarak ez du bizidunen inesiboa erabiltzen, eta ordezkapenean soziatiboa darabilte:

Ez dira erabiltzen *gurasoengan/gurasoen baitan* egiturak. Soziatiboa da ordezkoa: *Meiku horrekiñ eztaukezu batee konfiantzik* (Zuazo, 2011:41).

2.3.6. Nafarra eta Erdialdekoaren arteko trantsizioa



5. Irudia. Nafarra eta Erdialdekoaren arteko trantsizioaren zabalkunde geografikoa (Zuazo, 2008)

Nafarroako mendebaldean, Urbasa eta Aralar mendikateen artean eta Burunda ibaiaren ertzetan bizi da mintzagai izango dugun euskalkia, Burundako hizkera alegia. Burunda Sakana haraneko hiru zatietako bat da (Ergoiena eta Arakilekin batera). Antzina, Urdiaingo *Batzarramendi* dermionan biltzen ziren herriek osatzen zuten *Burundako Unibertsitatea*. Gaur egun, Ziordia, Olatzagutia, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku udalerriek osatzen dute Burunda. Nafarreraren eta erdialdeko euskararen trantsizioan kokatzen den euskalki honek, lekutasun sistemetan berezko joskerak erabiltzen ditu bizidun/bizigabe tratamenduan.

Koldo Zuazok ezaugarri horiek guztiak bildu zituen *Sakanako euskara: Burundako hizkera* (Zuazo, 2010) liburuan.

Sistema animatuetan, inesiboan adibidez, Burundarrek *-en baitan* erabiltzen dute *-engan* ordez:

Bizidunen inesiboan *-en baitan* erabiltzen da Sakanan; ez Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako *-engan*. Urdiainen aditu dut ondorengoa: *jaiiek prestatzeko bajukagu konfiantzia gaziain baitan* (Zuazo, 2010:81).

Ablatiboan, erdiguneko euskararen formak aurki ditzakegu sistema edo adierazpide animatu edo bizidunetan:

Bizidunetan, era berean, Euskal Herriko erdiguneko *-gandi* eta *-gandik* erabiltzen dira Sakanan; ez *-ganik* zaharra: *bestieingandi(k)*, *besteengandik*, *guegandi(k)*, *guregandik* (Zuazo, 2010:81).

Ondoriozta daiteke, beraz, Sakanako hizkerak badituela nafarreraren eta erdialdeko euskararen ezaugarriak presente, bien arteko zubia izanik. Inesiboan ekialdeko formetara hurbiltzen da eta ablatiboan mendebaldeko joskeretara.

2.3.7. Ondorioak

Euskal Herriko eta Nafarroako euskalki ezberdinen analisi honetatik ondorio batzuk eskuratu ditzakegu. Alde batetik, ekialdeko mintzairetan bereziki, *baitaren* erabilera azpimarratuko genuke, funtzio ezberdinetan ageri dena, genitibo naiz inesiboan. Adlatiboan, Zaraitzu aldean *norengana* dokumentatua dagoela behatu dugu (Arana, 2002), baina Ibarrek dioenez Erroibaren ohikoa da lekuzko kasuetan bizidunak bizigabeak balira deklinatzea (Ibarra, 2000).

Mailopeko euskara azaltzean bereizgarri den ezaugarriari erreparatu diogu: inesiboaren orde zoziatiboaren erabiltzea (Zuazo, 2011).

Ikus dezakegunez, beraz, euskalkiek ez dute sistematikoki egiten bizidun/bizigabe bereizketa, eta ezberdintasun anitz topa ditzakegu bata edo bestearen ezaugarri morfologikoak aztertzeke unean.

3. TESTUINGURU PEDAGOGIKOA

Ezin ahanzi gure lanaren helburua pedagogikoa dela, planteamendu, ikuspegi eta langaietan ere, alegia, hizkuntzaren alderdi soziolinguistiko eta gramatikaren testuinguraketa eginda, orokorra izanda ere, hezkuntzaren jardunean ibiliko ditugunak azaldu eta aztertuko ditugu hurrengoetan.

3.1. Deklinabidea eta LDP Lehen Hezkuntzako Curriculumean

Euskararen zabalkundeak hezkuntza lege eta araudi ezberdinak izango baditu ere, gure lanaren garapena Nafarroan kokatuko dugu ezinbestean, gure ikerlanaren markoa izateaz gain, gure prestakuntzaren testuinguru ere badelako.

Nafarroako Lehen Hezkuntzako Curriculumak ez du deklinabidearen eta LDPen lanketa esplizituki jasotzen⁵.

Hala ere, hizkuntzaren zuzentasun eta gramatikari aipuak badira, eta gure aburuz hortxe koka dezakegu hizpide ditugunak, naiz eta zuzenean ez aipatu.

Nafarroako Curriculumak hizkuntza tratamendu integratuari eskaintzen dion liburukian

3. Ziklorako markatzen dira aipatutakoen helburu, ebaluazio irizpide eta helburuak.

⁵ 24/2007 FORU DEKRETUA, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculumak ezartzen duena.

Horrela, D ereduan landuko den *Euskara eta literatura* ikasgaiak helburuen artean honakoa du (Lehen Hezkuntzako etapa guztirako):

10. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren arauari buruzko ezagutze baliatzea modu egokian, koherentean eta zuzenean idazteko eta hitz egiteko, eta ahozko zein idatzizko testuak ulertzeko (Nafarroako Gobernua, 2007:43).

Esan bezala, 3. Zikloko edukietan biltzen da zuzentasun linguistiko eta gramatikalarik dagokiona, 4. Multzoan, *hizkuntzaren ezagueraz* mintzo denean:

Ondoko terminologiari buruzko gogoeta, erabilera eta intuiziozko definizioa produkzio eta interpretazio jardueretan: landutako testuen izenak. Silaba, esakunea: esaldia eta perpausa; esakune motak: deklaraziozkoa, galderazkoa, harridurazkoa, aginduzkoa. Perpausako ordena: galdegaia eta ezezko perpausetakoa; loturak: preposizioa eta juntagailuak. Hitz multzoak: nukleoa eta osagarriak; izena; adjektiboa; adberbioa; postposizioak; aditza: maizen erabiltzen diren aditz trinkoen jokoak, aditz perifrastikoak eta trinkoak bereiztea, aditz-denbora: orainaldia, lehenaldia, geroaldia, agintera, infinitiboa; aditzaren aspektua; pertsona gramatikala. Numeroa, deklinabidea, mugagabea. Euskararen eta gaztelaniaren artean dauden desberdintasun morfologiko eta sintaktikoak identifikatzea (Nafarroako Gobernua, 2007:55).

Ebaluazio irizpidetan ere jasotzen da, Ziklo eta multzo berdinean, 10. Irizpidea delarik:

10. Gramatikaren eta linguistikaren terminologia, zikloari dagokiona, ulertzea eta erabiltzea testuak sortzeko eta ulertzeko jardueretan.

Irizpide honekin konprobatu nahi da ea ikasleek erabiltzen den hizkuntzari buruzko oinarrizko ezagutza gramatikalak barneratu dituzten. Egiaztatu nahi da ikasleek ikasketa horiek erabiltzen dituztela testuak egiterakoan eta berrikusterakoan, komunikazio hobea lortze aldera. Halaber, baloratuko da arazo linguistiko batzuei buruz eztabaidatzeko behar den terminologia erabiltzea, egiten diren oharpenak ordenatzea eta ikasitakoa azaltzea. Etaparen bukaeran, ondokoak sartzen dira eduki horien barrenean: testuen izendapenak, euskalkiak badaudela ezagutzea, esakuneak osatzen dituzten elementuak, hitz mota desberdinen ezagutza (izena, adjektiboa, aditza eta abar) eta hitzak osatzeko moduari buruzko oinarrizko nozioak (denbora, numero eta pertsona aldaerak; maiz erabiltzen diren aurrizkiak eta atzizkiak eta abar) (Nafarroako gobernua, 2007:62).

3.2. Deklinabidea eta LDP testuliburuetan

Ikertu dugun ikastolan eta euskal eskola anitzetan txanela proiektuaren baitan sortutako materialak erabiltzen dira ikasgeletan:

Txanela proiektua derrigorrezko lehen hezkuntzako ikas materiala da. Haur Hezkuntzan Urtxintxa proiektuarekin hasitako ibilbidearen jarraipen modura aurkezten den proiektu honek, bi etapen arteko zubi lana batetik eta Lehen Hezkuntzaren oinarriak finkatzen laguntzearena bestetik ditu helburu. Lehen Hezkuntza etapa zabala den heinean (6-12urte), eta ziklo bakoitzak bere zeregina duenez hezkuntza prozesuan, hauen arteko eta beste etapekiko loturak zainduaz curriculum eskaintza koherente, bateratu eta egokia eskaintzeko asmotan sortua (Ikastolen elkarte, 2005).

Txanela material globalizatua da, hau da, ikasgai ezberdinak bateratzen dituen eta bide batez zehar lerro eta gaitasunen barneraketan oinarritzen dena. Materialak egungo eskolak planteatzen dituen behar ugari asetzen ditu, baina globalizatuegi izateak ikasgai bakanen lanketa zailtzen du batzuetan eta eduki zehatzak jorratzea irakaslearen esku uzten du⁶.

Ikus dezagun, gure gaiari, LDP eta bizidun/bizigabe bereizketari eskaintzen zaizkion azalpen eta ariketen proposamenaren laburpena⁷.



6. Irudia. Txanelaren azalpen adibidea (Saenz, 2008:51)

⁶ Ondorio honetara materialaren analisitik eta Irantz Zubaltza tutorearekin izandako mintzalditik heldu gara.

⁷ Cf. I. eta II. Gehigarriak.

Determinatzaile Sintagmaren deklinabideko bizidun/bizigabe bereizketaren jabekuntza Lehen Hezkuntzan: Iruñeko adibide bat

Txanela koaderno globalizatuan 6. Irudian ikusten dugun gisan aurkezten dira edukiak. Ikasleei ikusgai diren elkarrizketa edo testuen inguruko zuzentasunaz gogoeta egin dezaten eskatu eta ariketatxoak proposatzen dira ondoren. Ez da material honetan (globalizatuan) inongo argibide linguistikorik ematen; *bizidun*, *bizigabe*, *deklinabidea* eta gisako hitzak ez dira agertzen. *Euskara lan-koadernoan* landu beharreko gaia dela agintzen da.

Euskara lan-koadernoak 4 orrialde eskaintzen ditu deklinabidea eta *deklinabide-atzizkiak* azaltzeko. Liburuak azalpen teoriko bakarra ematen du gai honen inguruan:

Badira, hitz berriak sortu beharrean, hitzari esaldi barruan zentzua ematen laguntzen duten atzizkiak; hitz horiek inguruko beste hitzekin lotzeko eta testuinguru jakin batean zentzua emateko erabiltzen dira.

Zakurra daukagu etxean.

Zakurrari etxea egin diogu.

Etxeko txakurrarentzat janaria erosi dugu.

Zakurraren etxerako alfonbra berria erosi dugu.”

Hizki edo atzizki horiei *deklinabide-atzizkiak* deitzen zaie (Saenz, 2008:27).

Aurrerago deklinabide kasuen taula osatzeko eskatzen da hurrengo ariketa batean, beti ere kasuak *nor*, *nori*, *nork*, *non*, *nongo*, *nora*, *norantz* eta abarrez izendatzen direlarik.

Bizidun/bizigabe bereizketa taulatxo baten bidez aurkezten da (cf. 7.irudia), eta bereizketa horri aipu zuzena egiten ez bazaio ere, hurrengo ariketatan ikasleak bereizketaren jakitun egitea bilatzen dela suposatzen dugu, adibidez:

(19) (Saenz, 2008:29)

- a. Ondo esanda al daude *etxearengana* noa eta *lagunera* noa? Azaldu zergatia zeure hitzekin.
- b. Hitz hauen artetik zein deklinatuko dira *etxe* bezala eta zein *lagun* bezala.

	etxe (sing./pl.)	lagun (sing./pl.)
NON edo NORENGAN	<i>etxean/etxeetan</i>	<i>lagunarengan/lagunengan</i>
NORA edo NORENGANA	<i>etxera/etxeetara</i>	<i>lagunarengana/lagunengana</i>
NORANTZ edo NORENGANANTZ	<i>etxerantz/etxeetarantz</i>	<i>lagunarenganantz/lagunenganantz</i>
NORAINO edo NORENGANAINO	<i>etxeraino/etxeetaraino</i>	<i>lagunarenganaino/lagunenganaino</i>
NONDIK edo NORENGANDIK	<i>etxetik/etxeetatik</i>	<i>lagunarengandik/lagunengandik</i>

7.Irudia. Bizidun/bizigabe bereizketa *euskara lan-koadernoan* (Saenz, 2008:29)

Hurrengo ariketa batekin bukatutzat ematen da gaiaren azalpen eta jorratzea. A ala B formako test xume honetan berriz ere ikasleari bizidun/bizigabe formen aukeraketa egitea eskatzen zaio:

(20) (Saenz, 2008:29)

- a. *"Gurasoetatik/Gurasoengandik* aparte pasatuko dut aurtengo oporraldi-gehiena.
- b. Zein soinu da *kaletik/kalearengandik* datorren hori?
- c. *Zuzendarira/Zuzendariarengana* noa gertatu dena kontatzera
- d. Hurrengo *herriraino/herriarenganaino* joango gara eta hantxe bazkalduko dugu.
- e. Konfiantza handia du irakasleak *ikasleetan/ikasleengan*.

Tutoreek utzitako materialaren irakasleen gidaliburuan ere argi geratzen da azalpenen izaera orokorra, globalizatua, eta, beraz, euskara hizkuntzaren zuzentasunarekin sakonera eskasekoa⁸:

46. Hiztunak eta hizkuntzak

Lan egiteko ere: Talde handian/bakarka

*Materiala: Ikaslearen liburua, 51.or.*⁹

Euskaraz hitz egitean egiten ditugun okerren inguruko hausnarketa planteatzen da jarduera honetan. Erabilera oker horiek eragiten dituzten arrazoiengatik inguruan pentsaraziko diegu ikasleei, helburu argi batekin: hizkuntza zuzen erabiltzeak duen garrantziaz jabetu daitezen, eta horretarako ahaleginak egiteko jarrera har dezaten.

⁸ Irakasleek erabiltzen duten arren argitaratu gabeko eskuizkribua da.

⁹ Cf. I. Gehigarria.

Determinatzaile Sintagmaren deklinabideko bizidun/bizigabe bereizketaren jabeakuntza Lehen Hezkuntzan: Iruñeko adibide bat

Bestalde, abiapuntu hartu dugun komikiko elkarrizketan oinarrituta, hizkuntzaren sistemaren inguruko hausnarketa ere egingo dugu, hitzen deklinabidea eta deklinabide-atzizki kontzeptuak azalduz eta landuz. Lanketa gramatikal horren helburua hizkuntzaren erabilera hobetzea izango da, eta testuinguru horretan aurkeztuko zaizkie ikasleei ariketak. (Ikastolen elkartea, 2008)

Esan bezala, beraz, tutorearen esku geratzen da deklinabidearen azalpena (teorikoa edota ikasleen euskarri dena) eta ikasleengan bizidun/bizigabe bereizketaren jabeakuntza, aurrezagutzak direla medio edo bakoitzaren lan autonomotik sortuko denaren ondorio.

Tutoreen laguntzari esker gaiaren amaieran egindako azterketa teorikoa eskuratu ahal izan dugu. Bertan, gaien zehar landutakoak ebaluatzeko galderak agertzen dira. Hona gure gaiari dagozkionak¹⁰:

3.-Ezaba ezazu gaizki deklinatuta dagoen hitza.

- Medikura/medikuarengana joango naiz aitarekin.
- Etziraino/Etzi arte luzatu dute epea ordaintzeko.
- Gurasoek/gurasoak eraman naute ikastolara.
- Unai/Unai baino arreta handiagoa jarri dut azalpenetan.
- Ondoko gelakoak/gelakoek ipuina kontatu digute.

4.-Horrela esan beharrean... esazu horrela.

- Mendi gailurrera arte igo gara.
- Medikura noa.
- Ondoko gelakoak egin dute, ez guk.
- Zer pisuan bizi zara?
- Eramango al nauzu bizikletaz semaforora arte?
- Lagunetan konfiantza dut.
- Zu bezala egingo dut.
- Datorren asteraino luzatu dut epea.
- Atzo kalean ikusi nizun. (Jaso ikastolako 6. Mailako 6. Txanelaren inguruko galderak)

¹⁰ Cf. III. Gehigarria.

Gure gaiari dagokionez eta ondorio gisa esan dezakegu bai materialak eta bai irakasleen azterketak LDP forma bizidun bi indartzen dituela bereziki. Inesiboaren (*lagunengan, ikasleengan*) eta adlatiboaren (*medikuarengana, zuzendariarengana*) formak alegia. Suposa dezakegu ikaslearen egunerokotasunean edo ager daitezkeen formak lantzearen helburuarekin egin dela aukeraketa hau.

4. HIPOTESIA

Izenburuak dioenez gure ikerketak deklinabidearen bizidun/bizigabe bereizketaren barneraketa Lehen Hezkuntzako ikasleengan aztertu nahi du. Azaldu dugu aurreko atal teorikoetan LDP-ek dituzten ezaugarri nabarientako horixe. Gure analisiak, beraz, honako galdera izanen du iturburu: Egiten al dute Lehen Hezkuntzako ikasleek bizidun/bizigabe bereizketa LDPtan?

Hasierako hipotesian ezezkora joko dugu. Ikusi dugu euskalkietan eta historian bereizketa ez dela sistematikoa izan eta hizkuntzaren jabekuntza prozesuan ere arauarekin salbuespen edo hutsuneak egongo direla aurreikusten dugu. Zuzentasun linguistikoaren gainean gaztetxoan arduragabekeria, ikasketa prozesuan murgilduta egonik, dira gure aburuz bereizketarik egingo ez dutenaren arrazoi printzipalak.

Bide batez, bereizketa eta *-ga*-ren agerpena adlatiboan aurki dezakegula aurreikusten dugu. Bereziki, *irakaslearengana, Ainararengana, medikuarengana...* bezalakoak sarritan entzun ahal direlako Lehen Hezkuntzako ikasgelen egunerokotasunean. Gainera, testu liburuetan eta euskalkietan ere (jorratu dugun marko teorikoan alegia) topatu ditugu adibide gehientsuenak adlatiboan daudelako emanak.

5. METODOLOGIA

Gure hipotesia baieztatzeko edo deuseztatzeko galdeketa pasa diegu Jaso Ikastolako Lehen Hezkuntzako 6. mailako 49 ikasleri.

Jaso Ikastola gizarte ekimeneko ikastetxea da, 1980ean sortua eta guraso kooperatibak kudeatua. Iruñeko Mendebaldea auzoan dago, eta Iruñerri osoko ikasleak biltzen ditu.

Ikastolak 2 urtetik 16 urtera bitarteko ikasketak eskaintzen ditu, Haur Hezkuntzatik hasi

Determinatzaile Sintagmaren deklinabideko bizidun/bizigabe bereizketaren jabekuntza Lehen Hezkuntzan: Iruñeko adibide bat

eta Derrigorrezko Hezkuntza bukatu arte. Ikastolan euskara da harremanetarako eta ikasketarako hizkuntza nagusia. Jaso Ikastola ikastetxe itaundua da, 700 bat ikasle eta 75 langile inguru ditu gaur egun.

Ikasleak laginketarako aukeratuak izateko zergatien artean erabakigarria izan da testuinguru pedagogikoa¹¹: Curriculum, adinaren ezaugarri psiko-ebolutiboak...

Estatistikan, laginketa populazio bat aztertzekeo lagina jasotzeko prozesuari deritzo. Laginketaren helburua lagina modu egoki eta eraginkorrean aukeratzea da, populazioa fidagarritasunez islatzearren. Errolda sistemak ez bezala laginketak baditu hainbat abantaila, gurean erabilgarri suertatu direnak. Alde batetik, egiteko ahalbidea eta kalitatea (ezinezko genukeelako euskal ikasleriari bere osotasunean galdeketa helarazi eta are gutxiago zehaztasunez emaitzak aztertu) eta bestetik testuinguru soziolinguistikora moldaketa. Ikasle talde ahal bezain homogeneoa izateak gure emaitzen eta ondorioen konparagarritasuna bermatzen du.

Galdeketa¹² bi multzotan bana dezakegu. Lehenengoan, *hutsuneak bete* motako ariketa osatu dugu, 18 galderez osatua. Galdera horien artean, ikasleek gure ikerketaren xedea zein zen ez antzemateko galdera betegarriak txertatu genituen. Hutsuneok LDPen forma animatuekin formekin bete dezaten bilatzen da. 10 baino ez dira interesekoak gure ikerlanaren muinerako: inesibo, ablatibo, adlatibo, hurbiltze-adlatibo eta muga-adlatiboaren forma bizidunak ematera ikasleak behartzen baitituzte.

Bigarren multzoan, aldiz, 5 esaldi gaztelaniatik euskaratzeko eskatzen da. Lehenengo multzoan ez bezala, oraingoan bostak dira interesgarri gure ikerlanaren muinerako: inesibo, ablatibo, adlatibo, hurbiltze-adlatibo eta muga-adlatiboaren forma bizidunak ematera ikasleak behartzen dituzten heinean. Multzo honek intereseko bereizgarria du: Ikasleen erdarakaden zenbatekoa eta beren diskurtsoetan edo idatzietan duten eragina aztertu eta konprobatzea.

¹¹ Espainiako estatistika institutuak proposatzen duen terminologia erabiliko dugu (Casado, 2007).

¹² Cf. IV. Gehigarria.

Oso tara, beraz, 15 joskera dira¹³, inesibo, ablatibo, adlatibo, hurbiltze-adlatibo eta muga-adlatiboaren hiruna forma bizidun.

Ariketaren izate eta antolabidea, ikasleak ohituta dauden tankeran aurkeztu dugu, arrotz ikus ez dezaten eta gure helburua ahalbidetzeko. Hau da, testuliburuetan biltzen diren ariketen gisan daude aurkeztuak eta bideratuak gure galderak eta eskakizunak ere. Euskaratze ariketen egokitasuna batzuetan zalantzan jar badaiteke ere (mugak dituzte ikaslearen gaitasun linguistikoa ebaluatu edo neurtzerakoan, kalkoak duen garrantziarengatik bereziki), gure jomugarako baliagarri direla ezin dezakegu ukatu, bereziki erdarakaden antzemate eta ebaluazioan.

6. DATUAK ETA ANALISIA

Metodologia (5.) atalean aipatu den bezala, diseinaturiko galdeketa bi multzotan bana dezakegu, alde batetik *bete itzazu hutsuneak* galderetan eskuratutako datuak izanen ditugu eta bestetik *euskaratu esaldiok* atalaren emaitzak. Datuen aurkezpen eta analisia multzo horien bitartez, edo multzo horien izatea errespetatuz emanen ditugu. Multzo bakoitzean ikergai izan ditugun leku-denborazko 5 postposizioen kasuak ezberdinduko ditugu bide batez.

Gure lanaren ardatz ez izategatik, ez diogu esaldiaren zuzentasun edo zuzentasun ortografikoari erreparatu, leku-denborazko postposizioan jarri dugu fokua, eta bizidun/bizigabe bereizketa egiten den edo ez behatu. Bereizketa egitea *arrakastatzat* ulertuko dugu, gure adierazpideak argiago aurkezte aldera.

6.1. *Bete itzazu hutsuneak* multzoa

6.1.1. Inesiboa


- Emaitza arrakastatsuen formak:
 - *Konfiantza handiagoa dut Iratxerengan Arkaitzengan baino.*
 - *Entrenatzailearengan dago arazoa. Jokalariek ez dute inongo kulparik!*
- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 26,5 (%27,2)
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 9 (%9,2)
- LDP forma bizigabea: 21,5 (%21,9)

¹³ Erantzunen osotasuna gehigarrietan. Cf. V. eta VI. Gehigarriak.

Determinatzaile Sintagmaren deklinabideko bizidun/bizigabe bereizketaren jabeakuntza Lehen Hezkuntzan: Iruñeko adibide bat

- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 5 (%5,1)
- LDPrik ez: 36 (%36,6)
- Txurian: 0 (%0)

1.Grafikoa. Arrakasta inesiboan



Analisi kualitatiboa:

Ikus dezakegunez arrakastaren zenbatekoa (%27,2) ez da eskasa inondik inora. Aipatu dugun bezala inesiboa forma bizidunetan aunitz lantzen delako ikasgelan alde batetik, eta bestetik hizkuntzaren erabileraren ikuspegitik ohiko xamarra egiten delako. Inork ezin uka *Arkaitzen*, *Iratxen* edo *Mikelen* bezalakoak arrotz egiten direla gure belarrietan.

Ehunekorik altuena ezpada ere (%9,2), ortografikoki desegoki adierazitakoak ere baditugu: *Iratxengan*, *Arkaitzerengan*, *Entrenatzaileangana*... Gure aburuz, ikasketa prozesuan dago hauen arrazoia. Irakasleak arbelean edo paper euskarrian gaia azaltzen duelarik, atzizkiei ematen die garrantzia txertaketak nolako beharko lukeen aipatu gabe, adibideetan islatzen den gisan.

Bizigabeen emandako LDP formen adibideen ugaritasuna aipatzekoa da inesiboan (%21,9). *Iratxen* eta *Arkaitzen* gutxitan kausitzen den arren, 19 ikaslek erabili dute *entrenatzailean*, kopuru inportantea duarik gabe. Izen arruntekin, beraz, arrakasta handiagoa da propioekin alderatuta.


Ikasleen %5,1ek beste LDP batzuk ere erabili dituzte, , esaldiaren zentzuarekin harremanik gabekoak: *Iratxerengandik*, *Iratxengan* (ortografia ere modu desegokian) eta abar.

LDPrik erabili ez duenik ere egon da, suposa dezakegu LPDen problematika saihestu nahian, zailtasuna edo ezjakintasuna arrazoi direlarik. Sozietiboaren eta ergatiboaren erabilera aipatuko genituzke: *Iraxerekin, Arkaitzekin, Iratxek, Entrenatzailearekin* adibidez.

6.1.2. Ablatiboa

- Eraitza arrakastatsuen formak:
 - *Amaiarengandik/Amaiagandik jaso dudana laguntza ezinbestekoa izan dut azterketa gainditzeko.*
 - *Aitorrengandik ez dut ezer espero, baino zure jokabideak biziki mindu nau.*
- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 24 (%24,5)
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 0 (%0)
- LDP forma bizigabea: 6 (%6,1)
- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 20 (%20,4)
- LDPrik ez: 48 (%49)
- Txurian: 0

2.Grafikoa. Arrakasta ablatiboan



Analisi kualitatiboa:

Ablatiboaren forma bizidunekin arrakasta ez da eskasa izan (%24,5). Gure hipotesietan ez genuen jaso ablatiboaren erabilera handirik topatuko genuenik, zinez uste baikenuen eskasagoa izanen zela, bereziki izen propioak bizigabea espero genituen. Oraingoan ez dugu ortografikoki desegokia den formarik topatu.

Inesiboan bezalaxe ablatibo bizigabeak topatu ditugu, sei alegia (%6,1). Bi adibideak izen propio izanda kopurua baxuago izan litekeela uste genuen planteamendua egiterakoan: *Amaiatik* eta *Aitorretik* bezalakoak ez genituela irakurriko.


Eskatzen ez genituen beste LDP bizidun anitz aurkitu ditugu, gehiengoak Inesiboan deklinatutakoak (*Amaiarengan* eta *Aitorrengan*). Ikusiko dugunez inesiboaren zabalkundea garrantzitsua izan da erantzunetan, sarri erabili dute ikasleek, ez dagokionean ere.

Leku-denborazko postposiziorik erabili ez duenik ere egon da. Ia erantzunen erdia (%49) beste kasu batzuez izan da deklinatua: ergatiboan (*Amaiak*, *Aitorrek*, *Aitork*), edutezko genitiboan (*Amaiaren*) edo soziatiboan (*Aitorrekin*).

6.1.3. Adlatiboa

- Emaidza arrakastatsua formak:
 - *Zalantzarik baduzu irakaslearengana/irakasleagana joan beharko zenuke.*
 - *Mikelengana joango naiz ea zer kontatzen duen.*
- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 60 (%61,2)
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 4 (%4,1)
- LDP forma bizigabea: 1 (%1,1)
- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 14 (%14,2)
- LDPrik ez: 19 (%19,4)
- Txurian: 0

3.Grafikoa. Arrakasta adlatiboan



Analisi kualitatiboa

Hipotesien atalean argudiatu bezala adlatiboak arrakasta handia izango zuela suposatzen genuen. Hala izan da, erantzunen %60a izan baita arrakastatsua. *Irakaslearengana* eta *Mikelengana* formak ezagun egin zaie ikasleei eta zuzenki adierazi ere.

Hala ere aipatzekoak diren, agian ez ikuspegi kuantitatibotik baina bai zuzentasunaren ikuspegitik, akats ortografiko batzuk erregistratu ditugu: *mikelren-gana*, *Mikelerengana* edo *Mikelen gana*. Berriro ere ikaskuntza/barneraketa prozesuan agerikoak diren ezaugarriak islatzen dituzte: Atzikia bereizita ematea (azalpenetan edota arbelan egiten den bezala) edo izenari behar bezala ez atxikitzea.

Bakarra izanik ere, bizigabeen eman du forma ikasle batek: *Irakaslera*.


Inesiboaren agerpena azpimarratzekoa izan da, osotara hamahirutan kontatu baititugu bere forma biziduna: *Irakaslearengan* edo *Mikelengan*. Bizigabeen adierazita, muga-adlatiboarekin lotu du beste batek esaldiaren esanahia: *Irakasleraino*.

Beste nolabaiteko kasuak ere ageri zaizkigu emaitzetan. *Irakaslea*, datiboan, edutezko genitiboan eta sozietiboan emana (*Irakasleari*, *Irakaslearen*, *Irakaslearekin*) eta *Mikel* sozietiboan (*Mikelekin*) hurrenez hurren.

6.1.4. Hurbiltze-Adlatiboa

- Emaidza arrakastatsuen formak:
 - *Txakurra eltxolarantz abiatu orde z amarenganantz hurbildu zen. Ikaragarri beldurtu zen!*
 - *Mirenenganantz joan zen eta musu eman zion.*
- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 0
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 0
- LDP forma bizigabeen: 2 (%2,1)
- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 60 (%61,2)
- LDPrik ez: 36 (%36,7)
- Txurian: 0

4.Grafikoa. Arrakasta hurbiltze-adlatiboan



Analisi kualitatiboa

Aurrekoetan ez bezala, eta kasu bakarra izan da, ez da arrakastatzat ulertzen dugun erantzunik aurkitu. Gure galdeketaren akats izan liteke (anbiguotasun aukerarik egon badagoelako) modu batean, baina 2. multzoan behatu dugunarengatik esan dezakegu ikasleek nekez ezberdintzen dituztela adlatiboak. Hau da, adlatibo hutsean ematen dituztela erantzunak, muga edo hurbiltzea alde batera utzita.

Bada hurbiltze-adlatiboa adierazi duena ere (%2,1), baina bizigabea bailitzan: *Amarantz*.

Aurreikus daiteken gisan ageri diren leku-denborazko postposizio bizidunak adlatiboan emandakoak izan dira (*amarengana* eta *Mirenengana*). Hala izan da gehientsuetan. Hala ere, ez dira gutxi izan inesibo bizidunak (*amarengan* eta *Mirenengan*) eta ablatiboan ere eman du batek (*amagandik*).


Ergatiboan deklinatu dira gehienbat LDPak ez diren formak: *Amak* eta *Mirenek*.

6.1.5. Muga-Adlatiboa

- Eraitza arrakastatsuen formak:
 - *Olatuaren urak baloia arrantzalearenganaino eraman du.*
 - *Lasterketa epailearenganaino iritsi, bostekoa eman eta lehenengo iristen denak irabaziko du.*
- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 9 (%9,2)
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 0 (%0)
- LDP forma bizigabea: 5 (%5,1)

- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 51 (%52)
- LDPrik ez: 32 (%32,6)
- Txurian: 1 (%1,1)

5.Grafikoa. Arrakasta muga-adlatiboan



Analisi kualitatiboa

Hurbiltze-adlatiboan baino altuxeagoa bada ere, arrakastaren ehunekoa eskasa dela esan genezake (%9). Aipaturiko arrazoiak direla medio (galdeketaren anbiguotasunaren probabilitatea eta adlatibo hutsaren erabilpenaren zabalkunde garrantzitsua) azaldu dezakegu emaitzaren nondik-norakoa berriz ere.

Muga-adlatiboa adierazi bai, baina izenak bizigabeak bailiran egin dituztenak ere behatu ditugu. Bost izan dira, eta bostek *arrantzaileraino* erantzun.

Adlatibo hutsean aurkitu ditugu datu gehienak, *arrantzalearengana* eta *epailearengana* adierazita (*epailera* bizigabea ere, %5ean alegia), baina anitza izan da aukeratutako kasuen zenbatekoa. *Epailearengan* eta *Arrantzalearengan* inesiboak, *Arrantzalerantz* hurbiltze-adlatiboa edo *Epailearengandik* ablatiboa.


Kasu gramatikalak ere aipa ditzakegu. Orokorrean esan daiteke *arrantzalea* hitza datiboarekin lotu dutela (*arrantzaleari*) eta *epailea* ergatiboarekin (*epaileak*). Kuriositate moduan ikasle batek sortu duen "hibrido" berria: *Arrantzak*.

6.1.6. Multzoaren datu orokor kuantitatiboak

- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 109,5 (%22,8)
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 13 (%2,7)
- LDP forma bizigabea: 35,5 (%7,4)

- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 150 (%31,3)
- LDPrik ez: 171 (%35,6)
- Txurian: 1 (%0,2)

6.Grafikoa. Multzoaren datu orokor kuantitatiboak




6.2. Euskaratu esaldiak multzoa

6.2.1. Inesiboa

- Eraitza arrakastatsuen forma:
 - *Ez dut itzaropen handirik jarrita Uxuerengan/Uxuegan.*
- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 19 (%38,8)
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 14 (%28,5)
- LDP forma bizigabeen: 2 (%4,1)
- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 9 (%18,4)
- LDPrik ez: 5 (%10,2)
- Txurian: 0 (%0)

7.Grafikoa. Arrakasta inesiboan



Analisi kualitatiboa

Euskaratzeko ariketetan, inesiboan, emaitza berezi xamarrek eskuratu ditugu. Alde batetik, arrakastaren zenbatekoa altuera azpimarra dezakegu (%38,8), *Uxuerengan* hemeretzitan irakurri baitugu.

Berezitasuna, kasu honetan, ortografiaren analisiari dagokion aldagaiarekin batera datorkigu. %28,5ek inesibo biziduna aukeratu bai, baina itsuski idatzi dute: *Uxueregan*, *Uxuengan* edo *Uxuen gan*. Berriz ere, ikasketa-irakaskuntza jardunari egotz diezaiokegu adibideen zergatia.

Bizigabeen ageri zaizkigu batzuk (%4,1) *Uxuen* erabiliz. Espero ez genuen beste LDPrik ere erabilia izan da (%18,4). Nahiz eta adlatibo bizidunaren adibidea eduki (*Uxueregana*), gehien sumatu duguna *Uxuengandik* izan da. Ablatiboaren forma, erdararen nolabaiteko kalkoarekin lotuko dugu, gazteleran erabiltzen diren preposizioek sortutako nahastearekin (ortografikoki desegokia ere bada noski).


LDP ez direnen artean honakoak irakurri ahal izan ditugu: *Ez daukat itxaropen asko Uxuerean esperantzaz*, *Ez dut esperantza handirik Uxuerekin*, *Ez dut esperantza handirik Uxuera*. *Uxuerekin* bezalako ordezkapen sozietiboak euskalki batzuetan presente daudela ikusi dugu lehenago, Mailopeko euskaran adibidez. (Zuazo, 2008)

6.2.2. Ablatiboa

- Eraitza arrakastatsuen forma:
 - *Irakaslearengandik urruntzen bazarete galduko zarete.*
- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 10 (%20,4)
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 1 (%2)

- LDP forma bizigabeen: 18 (%36,7)
- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 13 (%26,6)
- LDPrik ez: 7 (%14,3)
- Txurian: 0 (%0)

8.Grafikoa. Arrakasta ablatiboan



Analisi kualitatiboa

Arrakastaren zenbatekoa %20,4koa izan da ablatiboari dagokionez, 1. multzoko ablatiboan behatu dugunaren berdintsua. Zuzentasun ortografikoa ere egokia izan da ablatiboaren forma bizidun gehienetan.

Aipagarriena, bizigabeen eman diren kopuru zabala da (%36,7). Erdararen eragin nabarmenak *del profesor*, *irakasletik* bihurtu du, edo *monitoreetatik* (itzulpen berezia, ikaslearen egunerokotasunetik ekarria).

Beste LPDak aukeratu dituzten ikasle kopurua ere ez da nolana hikoia. Denek, %26,6k, egin dute inesiboaren hautua (*irakaslearengan*).


Beste formula batzuk aurkitu ditugu, LPD eta, batzuetan, kasurik ez dituztenak: *Urruntzen zarete galduko zarete*, *Joaten bazarete irakaslearen urrutik galduko zarete* edo *Irakaslearen urrun joaten bazarete galduko zarete*

6.2.3. Adlatiboa

- Emaiza arrakastatsuen forma:
 - *Maiderregana hurbildu eta besarkatu zuen.*
- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 29 (%59,2)
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 2 (%4,1)

- LDP forma bizigabeen: 1 (%2)
- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 7 (%14,3)
- LDPrik ez: 10 (%20,4)
- Txurian: 0 (%0)

9.Grafikoa. Arrakasta adlatiboan



Analisi kualitatiboa

1. multzoan ondorioztatu dugun gisan orain ere adlatiboan aurki daiteke arrakastaren kopururik garrantzitsuen (%59,2). Nonbait *Maiderrengana* ikasle askori gertuko iruditu zaio, izen berezien formak ikaslearen eguneroko mintzaldietan presente egonen baitira ezinbestean. Ortografia egokia izan da bi kasutan izan ezik, biek *Maiderrren gana* idatzi baitute.

Inesibo bizidunak, *Uxuerengan*, aurreko kasuetan bezalaxe, presentzia nabarmena izan du oraingoan (%14,3).


Kasu gramatikalen artean datiboa (*Maiderreri* eta *Maiderri*) eta ergatiboa (*Maiderre*) ditugu.

6.2.4. Hurbiltze-Adlatiboa

- Emaiza arrakastatsuen forma:
 - *Txakurra amaganantz/amarenganantz korrika egiten du gose denean.*
- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 2 (%4,1)
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 0 (%0)
- LDP forma bizigabeen: 1 (%2)

- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 46 (%93,9)
- LDPrik ez: 0 (%0)
- Txurian: 0 (%0)

10.Grafikoa. Arrakasta hurbiltze-adlatiboan



Analisi kualitatiboa

Euskaratze ariketen diseinuarekin anbigutasunak edo gaizkiulertuak baztertu nahi genituen hasieran, hurbiltze eta muga adlatiboak adlatibo hutsarekin nahastearenak bereziki, baina lortu dugun ez dugu oso argi. Bestela, ez da ulertzekoa %4aren arrakasta eskasa.

Hacia preposizioarekin hurbiltze funtzioa argitzen genuela uste genuen, baina 3 ikaslek ulertu dute soilik norabide edo zentzu horretan adierazpidea. Batek, gainera, bizigabeen eman du: *amarantz*.

Ikerketaren ondorioetan gehiago luzatuko garen arren, ezin dugu jakin gure galdeketaren muga ote den edo ikasleen adlatiboen ezberdintze eza.


Beste LPDak erabili dituzten artean zabalduena inesiboarena izan da (%20a hain zuzen), adlatiboa izan litekeela suposatzekoa bazen ere.

6.2.5. Muga-Adlatiboa

- Emaidza arrakastatsua forma:
 - *Usain txarra Mikelenganaino iritsi zen.*
- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 1 (%2)
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 0 (%0)

- LDP forma bizigabeen: 15 (%30,6)
- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 23 (%47)
- LDPrik ez: 10 (%20,4)
- Txurian: 0

11.Grafikoa. Arrakasta muga-adlatiboan



Analisi kualitatiboa

Hasta preposizio espainiarra ere ez da baliagarri izan muga-adlatibo kasu bizidunaren agerpena bermatzeko. Kasu bakarrean ageri baita.

Hala ere, %30,6k kasua identifikatu bai, baina Mikel “bizigabetu” dute: *Mikeleraino, Mikelera, Mikelraino...* irakurri ditugu.

Adlatibo biziduna eman dute gehienek (%47), eta, beraz, *Mikelengana* izan da emaitzarik zabalduena.


LPDeekin zerikusirik ez duten formulak ere oraingoan ikusgai: *Mikel harte iritsi zen usain txarra, Mikeli iritsi zitzaion usain txarra, Mikelen usaina iritsi zen edo Mikeleri ailegatu zion usain txarra.*

6.2.6. Multzoaren datu orokor kuantitatiboak

- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 61 (%24,9)
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 17 (%6,9)
- LDP forma bizigabeen: 37 (%15,1)
- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 98 (%40)

- LDPrik ez: 32 (%13,1)
- Txurian: 0 (%0)


12.Grafikoa. Multzoaren datu orokor kuantitatiboak



6.3. Multzoen osotasunaren datu orokor kuantitatiboak

- Arrakastaren zenbatekoa (LDPren forma biziduna): 170,5 (%23,5)
- LDPren forma biziduna ortografikoki desegoki emana: 30 (%4,1)
- LDP forma bizigabeen: 72,5 (%10)
- Bilatzen ez den beste LDParen forma animatua: 248 (%34,2)
- LDPrik ez: 203 (%28)
- Txurian: 1 (%0,2)


13.Grafikoa. Multzoen osotasunaren datu orokor kuantitatiboak



6.4. LDP bakoitzaren arrakasta (arrakasten osotasunarekiko)

- Inesiboa: %25,3
- Ablatiboa: %18,8
- Adlatiboa: %49,3
- Hurbiltze-adlatiboa: %1,1
- Muga-adlatiboa: %5,5

14.Grafikoa. LDP bakoitzaren arrakasta (arrakasten osotasunarekiko)



6.5. Ikerketaren ondorio nagusiak

Emaitzen osotasunaren datu kuantitatiboak naiz kualitatiboak aztertuta, ikerketaren ondorio nagusiak aipa ditzakegu:

Kuantitatiboak

- Arrakastaren zenbateko (edo bizidun bereizketaren agerpen) eskasa (%23,5).
- Bizidunen bereizketa arrakastatsuen (kopurutsuen) adlatiboan gertatu da (%49,3).
- Hurbiltze eta muga adlatibo LDPetan izan da bizidun bereizketak eskasen egin diren kasuak. (%1 eta %6).
- Gehienetan (%34) eskatzen edo galdetzen ez zen LDPa erabilia izan da.
- LDPen forma bizigabea gutxitan agertu da (%10).
- Sarritan LDPrik ez da erabili (%28).

Kualitatiboak

Ikerlan guztietan bada datuetan neurtzen zail suertatzen den aldagai, gertakari edo fenomenoren bat edo beste, horien jasotzea izanen da, beraz, lerro hauen helburua.

Kasuz kasu egin ditugun analisi kuantitatiboetan aipatua izan da inesiboaren erabilera zabala. Berezia egoera, inesiboa eskatzen zen galderetan %25eko arrakasta baino ez baita izan. Fenomenoaren arrazoia, gure aburuz, ikaskuntza prozesuak dituen euskarrietan koka dezakegu: irakaslearen azalpen eta material didaktikoan. Behatu dugu materialetan inesibo, ablatibo eta adlatiboaren presentzia dela garrantzitsuena eta Irakasleak ere kasu horiekin tematzen direla, egunerokotasunaren erabilera helburu dutelarik. Hala, suposa dezakegu ikaskuntza prozesuan murgilduta dagoen ikasleak forma horiek sistematizatu eta eskema kognitiboak eraikitzen dituela, askotan esanahia ulertu gabe aplikatzen dituelarik. Forma batzuk ihartu edo fosilduak egon litezke: *zuzendariarengana, Mikelengan edo Amaia gandik* erabileraren poderioz barneratuta. Muga eta Hurbiltze adlatiboak adlatibo hutsetik ez bereiztearen arrazoia marko honetan kokatuko genuke bide batez.

Tutorearekin izandako elkarrizketan mintzagai izan genituen gramatikaren irakaskuntzarako metodologiaren ezaugarri nagusiak. Deklinabidearen ikuspegitik eratorritako atzizkiaren ikuspegia izaten da sarritan Irakaslearen tresna maitatuena. Ez da arraroa Lehen Hezkuntzako arbeletan *-gan, -ganaino, -ra, -rik, -ren* bezalakoak idatzita topatzea. Ikasleak, hala behartuta, erroa eta atzizkia bananduak ezagutzen ditu hasieratik eta barneraketa edo garapen linguistikoa zehar elkartzen ditu. Horrela baino ez dira ulertzen *amaiaren gan, amaren gana...* joskerak.

Dagokigun lanaren ardatz ez den arren, aipatu gabe nola utzi aurkitu ditugun akats ortografiko eta erderakaden kopuru larria, beste baterako utzi beharko ditugu *gaizki olorea ailegatu zen Mikelearengana, Ez dut esperanza asko Uxuera, ez daukat asko itxaropen jarrita Uxueregan* bezalakoan analisia.

CONCLUSIONES Y CUESTIONES ABIERTAS

En las secciones que hemos desarrollado se ha tratado de definir el marco gramático, sociolingüístico, didáctico e histórico de las posposiciones espacio-temporales. En la investigación realizada con los alumnos de Educación Primaria de Jaso Ikastola ha quedado patente la influencia de todas ellas: Utilización mayoritaria de unos casos sobre otros, influencia del profesorado en las construcciones del alumno/a, y/o ambigüedad en algunas respuestas.

Hemos podido observar un escaso número de casos en los que los alumnos han diferenciado los sistemas animados de los inanimados (%23). En la mayoría de los casos además (%34), el alumno ha utilizado una PET que no correspondía con la función lingüística exigida. El 28% de los resultados han sido declinados mediante otros casos (gramaticales mayormente).

Habitualmente un trabajo de estas características concluye con una propuesta didáctica, generalmente explicitada en una secuencia de actividades y con unos objetivos pedagógicos previamente definidos. No obstante, creemos que la temática del contenido trabajado exige una propuesta pedagógica diferente.

En primer lugar, basándonos no solo en los datos obtenidos de nuestra investigación, también en la documentación curricular y en la naturaleza del material didáctico existente, creemos demasiado ambicioso y difícilmente alcanzable como objetivo, el aprendizaje de la diferenciación de los sistemas animados e inanimados en las PET en Educación Primaria. No obstante, debe hacerse un esfuerzo, en la medida que se enseña en una lengua estandarizada, por la corrección lingüística básica y en la medida de lo posible tratar de no incentivar graves errores.

En segundo lugar, hemos observado las diversas realidades sociolingüísticas, históricas y dialectales del euskera en nuestro entorno y en base a las características mencionadas, creemos que debe respetarse el tratamiento que cada dialecto da al fenómeno mencionado, e incluso, fomentar el uso de este en el aula de la Educación Primaria.

Finalmente, proponemos una línea de trabajo que puede resultar fructífera para la realización de propuestas didácticas en este ámbito en particular, y en la enseñanza

gramatical en general. Proponemos, resumidamente, un giro Chomskiano en el entendimiento del proceso cognitivo.

La escuela y enseñanza tradicional ha basado su actividad, así queda corroborado en nuestra investigación, en el binomio enseñanza/aprendizaje. En una reducción, tal vez algo simplista, podemos definir la enseñanza de la gramática como la transmisión de un conjunto de reglas predeterminadas. Unas reglas a menudo (en el caso del alumno de Educación Primaria) alejadas del propósito comunicativo de quien las recibe. El giro que proponemos reside en el cambio conceptual (no solamente terminológico) del concepto *aprendizaje* por el de *adquisición* (Friedemann & Siloni, 2010).

Tomamos de Chomsky la idea por la cual el lenguaje es adquirido por el humano en la etapa infantil, no aprendido. El niño cuenta con una capacidad innata para la comprensión y construcción en la función comunicativa. Expuesto a un medio lingüístico, no tardará en adquirir un corpus válido, difícilmente alcanzable en el proceso de aprendizaje adulto.

Proponemos, como herramienta metodológica y didáctica, la creación de espacios de adquisición lingüística en el aula. Es decir, la dotación de un *feed-back* gramatical al alumno, que posibilite el proceso cognitivo. Aunque resulta evidente que ya existe en la actividad diaria escolar (conversaciones, lecturas, explicaciones...) el profesor debe ser consciente de ello y entenderlo pedagógicamente. Debe generar situaciones o utilizar las existentes creativamente desarrollando opciones que garanticen un entorno de adquisición positivo.

No debe ser la corrección centro de la actividad docente, debemos entender el planteamiento positivamente. Es decir, si el/la profesor/a pretende que el alumno utilice *irakaslearengana*, no puede incurrir en la laboriosa y costosa corrección sistemática cuando emplee *irakaslera*. Al contrario, el error debe existir para poder generar una reflexión en el alumno, que entenderá (no se trata de un proceso instantáneo indudablemente) la relación con *Mikelengana*, *Zuzendariarengandik* o *amarenganaino*. Si se dejan convivir aciertos y errores y se refuerza una reflexión positivamente entendida, la internalización y adquisición serán posibles. El alumno no aprenderá de sus errores, adquirirá conocimiento: base de una educación significativa.

Concluimos pues este trabajo de la misma forma que titulábamos esta sección:

Cuestiones abiertas.

Erreferentziak

Arana, Aitor. (2002). Zaraitzuko uskara. Iruñea & Donostia. Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua & Hiria.

Azkue, Resurrección María de. (1925). *Morfología vasca*. Bilbao. Editorial Basca.

Campion, Arturo. (1884). *Gramática de los cuatro dialectos de la lengua euskara*. Tolosa. Casa editorial de Eusebio López.

Casado, Julio. (2007). *Manual básico de estadística*. Madrid. INE.

Creissels, Denis; Mounole, Céline. (2011). Animacity and spacial cases. In *Case, Animacy and Semantic Roles*, Kittilä, Seppo, Katja Västi & Jussi Ylikoski (eds.), 155–182. Non. John Benjamins Publishing Company.

